


## Gauetzko hegialak



### **Gauetzko hegaldia**

Jatorrizko izenburua: *Vol de Nuit*

Egilea: Antoine Saint-Exupéry

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Igel

### KARLOS DEL OLMO

John Irvingen arabera, "idazle halabada koaren bizitza bere obra baino interesgarriagoa da". Izkiriatazailen gainean esandako beste estereotipo bat baino ez da; alegia, idazlaria eguneroko bizitza aspergarriari kateatuta istorio (gutxiago edo gehiago) interesgarriak asmatzen dituen pertsona hasgarria delakoa. Antoine de Saint-Exupéryk hegan egin zuen asperduraren sasi guztien gainetik, eta bi eginkizun handi eta heroiko aukeratu zituen mentura egarria arintzeko: hegazkintza eta idazkuntza.

Saint-Exupéry hegazka grinak zoraturiko menturazale porrokatua baino areago izan zen: prosaz idazten zuen poeta, Frantziako moralista handien iturrietatik edaten zuen humanista, irudimen handiko marrazkilaria, asmatzaile bikaina, lagun atsegina gerran nahiz bake garaian, konde titulua alde batera uzten zuen aristokrata erromantiko pobretua, armadako kapitain gradua saihesten utzita eskuadrilako lagunaren aurrean 1939an "Saint-Exupéry, pilotua" esanda agertu zen pertsona. Hamabi urterekin joan zen hegazkinez aurreneko aldiz, eta hogeita batekin pilotua zen.

Eskuartearen darabilgun lan tamainaz txiki baino esanguraz handi honen omenez, perfume enpresatzaile ospetsu batek *Vol de Nuit* deitu zion egilea hil baino hamaika urte arinago plazaraturiko lurrin bati, besteak beste, liburuak bi urte arinago, 1931n, *Femina* saria irabazia zuelako (Bernanosek, Rollandek eta beste egile omentu batzuen antzera). Antoine de Saint-Exupéryk bere esperientziez idazten zuen, baina ez zuen autobiografia hutsa egiten. Narrazioan XX. mendeko beste nobelista handi batek legetxe jokatzeko modua, Louis Ferdinand Célineren modura; baina narrazio moldean amaitzen zen antzekotasuna, Céline nazien aldekoa ei zen, kolaborazionista eta erabat pesimista; ordea, Antoine de Saint-Exupéry errepublika demokratikoaren aldekoa, nazien aurkaria eta edertasuna nahiz bizipoza gauza txikietan eta bere erraietan ederto topatzen zekien lagun gogaldi ederrekoa. Ez da harrizkoa, beraz, André Gidek *Gauetzko hegaldia* liburuaren sarrera idazteko eskaintza beroa egitea Antoineri.

Nahikoa arrunta izaten da beste hizkuntzen, beste kulturen egoeraren espaz izatea, pentsatzea auzokoarena norberarena baino hobea dela. Itzulpen gintzan ere ez da harrigarri halakoak gertatzea, auzoko hizkuntzen itzulpenak gureak baino hobek direlakoan egotea. Baina aztertzen hasiz gero, berehala konturatuko gara ez dela beti hala jazotzen, auzokoek ere badutela txikiengandik zer ikasi. Esku artean dugun lan hau adibide ederra da. Koldo Izagirrek berak *Bazka* agerkari digitalean azaldu duenez, itzuli ahala, bertatik konturatu zen zatiak falta zirela espainierazko itzulpenetan frantsesezko edizioarekin alderatuta. Eta horrek harroina jartzen digu itzultzailearekin batera itauntzeko: "Zergatik dira zenbait editore handi (Gallimard jatorra tarteko) horren estuak euskarari eskubideak saltzerakoan, eta horren zabalak beraiek (kontratuz) zaindu behar

lituzketen egileen eskubide moraletan, hizkuntza nagusituekin? Zergatik ditugu horren estuak tratuan eta horren zabalak obraren duintasunean?". Ez da, jakina, auzi makala, nahiz eta ulergarriago gerta daitekeen kontuan izanez gero, azken buruan, argitaletxeak enpresak direla, etekinak (edo diru asko ez galtzea) lortzeko sortuak, eta egilearen eskubideak (diruzkoak eta moralak) bigarren edo hirugarren mailako gauzak izaten direla haietako batzuentzat. Eta egoera areagotzen da beste hizkuntzetarako itzulpenei dagokienez, batez ere, zertan esanik ez, handien ustez, itzulpena txikia den hizkuntza batean argitaratu behar duen argitaletxe txiker bati eskubideak saltzea tartean dela.

Igela argitaletxe ederresgarriak eskaintzen digun lan honetan itzultzailearen izena kredituetatik kenduz gero, irakurle bat baino gehiago berehala konturatuko da Koldo Izagirreraren eskua hantxe dela, ostenduta, idazle itzultzailearen estiloa, zelan edo halan, bat eginik doala Saint-Exupéryren jatorrizko estiloarekin, eta teorilari batzuek diotenez, jatorrizkoa berridatzi duela, birsortu, hizkuntza hartzaileko irakurleei jatorrizkoak eragindakoaren antzeko kultur zirrara lortzeko. Bestela esanda, zenbateraino izan behar du egia itzultzaileak ikusezina izan behar duelako usteak? Zer da, azken batean, ikusezina ikustea? Nork neurtu ditzake ikusezintasun mailak eta graduak? Nork esan dezake zein itzulpenek lortzen duen ondoen jatorrizkoaren eragin berbera?

Gainera, itzulpenean ere "bihotzez besterik ez da ondo ikusten. Mamia ikusezina da begientzat".